

Kiroltasunak irabazi zuen HUHEZI barneko neguko areto futbol txapelketa

2016/02/12

Hekuntzako lehen mailako ikasleak sasoian etorri dira aurten unibertsitatera. Sei partidutatik bakarra soilik galduta iritsi dira HUHEZI barneko neguko areto futboleko finalera P.D. Manoli eta Mongi F.C taldeak.

Finalari dagokionean, lehenengo zatian P.D.Manoli aurreratu zen hiru goleko abantailarekin baina bigarren zatia hasi bezain pronto, Mongi F.C taldeak bi gol jarraian egin zituen eta asko parekatu zen partidua. Amaieran, ongi gauzatutako jokaldien ondoren etorri ziren P.D.Manoliren golak. Honenbestez, 6-3ko emaitzarekin lehiaketako kopa eskuratu zuten. Eta garrantzitsuagoa dena, kiroltasunez jokatu zutela partidua, seriotasunez baina giro onean eta errespetuz.

Dena den, bi taldeek izango dute aukera MUko Unibertsitate-Kirol txapeketan HUHEZI ordezkazeko. Batek areto futboleko eta besteak futbol 7an.

Amaitzeko, Kirol Zerbitzutik eskerrak ematea txapelketa honetan parte hartu duten 11 taldeetako ehundik gora ikasleri, astero partiduak jokatzearatik, konpromenez, kiroltasunez eta giro onean.

Udaberrian berriz ere jokatu da txapelketa, beraz, gonbidatuta zaudete guztiok!



P.D. Manoli-ko taldekideak.
HUHEZI barneko neguko areto
futbol txapelketako garaileak 15/16